



Iragarkia

Praktiketako funtzionarioen izendapena

Mankomunitate honetako lehendakariak, 2020ko otsailaren 24an, besteak beste, ondorengo Ebazpena hartu du:

“20/15.- Mankomunitate honetako lehendakariak, 2019ko martxoaren 29an, Mankomunitateko funtzionarioen plantilako bi informatzaile-teknikari plaza betetzeko hautapen prozesu deialdia egitea erabaki zuen, oposizio-lehiaketa ireki sistemaren bidez. Oinarriak 68 zenbakidun 2019ko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Ariketak kalifikatu eta merituak balioetsi ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak azken kalifikazioak finkatu zituen eta Mankomunitateko lehendakariari puntuazio altuena lortu zuten lehen bi hautagaien izendapen-proposamena egitea erabaki zuen, baldin eta erreklamazioak aurkezteko epean erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko.

Horretarako emandako epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, eta proposatutako bi hautagaiek eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, hamalagarren oinarriaren arabera,

ERABAKI DUT

1.- ASIER ETXANIZ EIZAGIRRE eta OLATZ IZAGIRRE ALDAZABAL izendatzea Debagoieneko Mankomunitateko praktiketako funtzionario, informatzaile-teknikari lanpostuan; bi lanpostu hauek A2 sailkapen taldekoak dira eta Administrazio Bereziko Eskalan eta Zerbitzu Berezien Azpieskalan sartzen dira.

2.- ASIER ETXANIZ EIZAGIRREk 2020ko martxoaren 1ean hasiko du bere sei hilabeteko prestakuntza eta praktika-aldia.

3.- OLATZ IZAGIRRE ALDAZABALek, berriz, 2020ko maiatzaren 11n hasiko du bere prestakuntza eta praktika-aldia, orduan bukatzen baita bere amatasunagatiko lizentzia.”

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek bere aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian BI HILABETEKO epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez dezakete erabakia hartu duen organoaren aurrean **HILABETEKO** epean.

Eta horretaz gain, interesatuek bidezkoztat jotzen duten beste edozein egintza edo errekurtsio aurkez dezakete.

Arrasaten, 2020ko otsailaren 26an.- Lehendakaria.